



Etxebixitzen salmenta %9,2 hazi zen urtarrilean

Euskadin saldutako etxebizitzak
Urte bakoitzeko urtarila




Iturria: INE.

INEk argitaratu dituen datuen arabera, **urtarrilean Euskadin saldutako etxebizitza kopurua %9,2 hazi zen aurreko urteko hil berarekin alderatuta**. Zehazki, 2.361 etxebizitza saldu ziren. 2025 urtea dinamismo handiz eta prezio gorakadarekin bukatu ondoren, merkatuak bilakera hau berretsi zuen 2007tik urtaril baterako egon den daturik onenarekin.

Industriako prezioak %1,7 murriztu ziren otsailean

Industria prezioen indizea (IPRI)
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako Euskadiko industriako prezioen indizea %1,7 jaitsi zen otsailean urte arteko tasan. Energiaren prezioek %9,3 egin zuten behera; kontsumo ondasunek eta bitarteko ondasunek, berriz, jaitsiera apalagoak izan zituzten. Ekipamenduko ondasunek, aldiz, %1,6 egin zuten gora.



Azalera handietako salmentak %1,0 igo ziren

Azalera handietako salmentak
Urte bakoitzeko otsaila. Indizea




Iturria: Eustat.

Otsailean, Euskadiko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %1,0 hazi ziren, aurreko urteko hil beraren aldean. Igoera horretan bai elikagaien bilakaerak (%1,3) bai gainerako produktuenak (%0,3) eduki zuten eragina. Aitzitik, langile okupatuak ia egonkor mantendu ziren, %0,1eko jaitsiera txikiarekin.

Urtarrilean esportazioak %4,5 gutxitu ziren

Atzerrira bidalitako ondasunen esportazioak
Urte bakoitzeko urtarrila. Milloi euro



Iturria: Eustat

2026ko urtarrilean, Euskaditik atzerrirako ondasunen esportazioak 2.162 milioi eurotakoak izan ziren, urte arteko % 4,5eko jaitsiera izanez. Produktu energetikoen esportazioak %169,3 hazi ziren eta ez-energetikoenak berriz %6,8 jaitsi. Merkataritza saldoa positiboa izan zen, 113,2 milioi euro ingurukoa.